

## NAFARROAREN HISTORIA ARLOKO PROGRAMAZIO LABURRA

Irakaslea	Irandatz Aurkenerena Arbelaitz	Maila	2.BATXILERGOA	Ikasturtea	2020-2021
-----------	--------------------------------	-------	---------------	------------	-----------

### IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

- Hautazko ikasgaia, batxilergoko ikasle guztiei eskainia.
- Asteazken orduz ematen da

### OINARRIZKO GAITASUNAK

### UNITATEAK

1) Hizkuntza komunikazioa.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
3) Gaitasun digitala.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
4) Ikasten ikastea	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
6) Ekimena eta ekintzaitza.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12

### ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

Batxilergoa: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1>

### EDUKIAK

1. NAFARROAREN NORTASUNAREN EZAUGARRIAK
2. NATUR INGURUNEA
3. POPULAZIOA ETA HIRI SISTEMA
4. PRODUKZIO SEKTOREAK
5. HISTORIA AURRETIK MUSULMANEN NAGUSITASUNERA BITARTE
6. IRUÑEKO ERRESUMA
7. NAFARROAKO ERRESUMA 1512RA ARTE
8. NAFARROA MONARKIA HISPANIKOAN SARTUA
9. XIX MENDEA
10. XX. MENDEA, GERRA ZIBILERA ARTE
11. GERRA ONDOTIK TRANTSIZIO DEMOKRATIKORA
12. GOBERNU DEMOKRATIKOAK GAUR EGUNDAINO

Skolae-ko jarduerak.

Nafarroako Hezkuntza Departamentuko **Skolae Berdin Bidean** programan integratutako ikastetxea izanik, programa honen jarduerak eskola programazioetan eta edukietan txertatuta daude.

### EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

[Batxilergoko kurrikuluma](#)

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
10	1. BLOKEA	10	5. BLOKEA	10	9. BLOKEA
10	2. BLOKEA	10	6. BLOKEA	10	10. BLOKEA

10	3. BLOKEA	10	7. BLOKEA	10	11. BLOKEA
10	4. BLOKEA	10	8. BLOKEA	10	12. BLOKEA
<b>METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK</b>					
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikaslearen lanean oinarritutako metodologia.</li> <li>• Irakasleak azalpenak emango ditu, atal bakoitzari eta jarduera bakoitzari dagokion luzera eta konkrezioarekin.</li> <li>• Horretaz gain ikasleei banaka zein taldeka egin behar duten lana planteatuko die, eta epeak jarri.</li> <li>• Zereginen bitarteko metodologia, IK/KI erabiliz. Nafarroa. Historiaren hariak liburua kontsulta moduan erabiliko dugu. Horrekin batera atlasa eta irakasleak egokiak ikusten dituen materialak erabiliko dira, hala nola eskemak, testuak, irudiak edo material informatikoa.</li> </ul>					
<b>Ebaluazioa eta Errekuperazioa</b>					
<b>KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK edo BALIABIDEAK</b>					
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Printzipioz, ebaluazioko nota ez da azterketen bidez eginen, (beti ere, baldintzak betez gero, ikus, bigarren puntua).</li> <li>• Gai bakoitzeko bidaltzen diren lan eta ariketen batz bestekoa eginez eratorriko da ebaluazioko nota.</li> <li>• Gai bakoitzean eskatzen den lanari kalifikazio bat jarriko zaio.</li> <li>• Tarteka, irakasleak azterketa desberdinak jartzen ahal ditu, ebaluazioko batez besteko notaren indargarri izan daitezkeenak.</li> <li>• Bikaintasun maila lortzeko ezinbestez azterketa hauek egin eta gaintitu beharko dira.</li> <li>• Ebaluazio amaieran, gai guztietako kalifikazioen batez bestekoa egingo da, (baliteke gai edo lan batzuk beste batzuk baino pisu handiagokoak izatea).</li> </ul> <p><b>Azterketak ez izateko bete beharreko baldintzak</b>, (norbaitek ez baditu baldintza hauek betetzen, azterketa arrunta egin beharko du).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Planteatutako lan guztiak eginak egotea</li> <li>• Irakasleak eskola orduetara ez etortzeengatik garaiz egin ez dituenak ere bai.</li> <li>• Egin gabeko ariketa bakoitzak 0 nota ekarriko du eta justifikaziorik gabe berandu emandakoak gehienez 5eko nota izango du .</li> <li>• Jarrera eta portaera egokia, hau da: arretaz jarraitu azalpenei, oharrak hartu...</li> <li>• Irakaslearen azalpenak edo ikaskideen parte hartzea ez oztopatu.</li> <li>• Euskaraz egin beharko ditu ahozko harreman guztiak, bai irakaslearekin, bai beste ikaskideekin.</li> <li>• Baldintza hauek betetzen ez dituenari puntu bat kenduko dio irakasleak, horrela gertatzen den ariketa edo lan bakoitzaren kalifikazioan.</li> <li>• Ariketa eta lan indibidualak zein taldetakoak nork bere erara egin behar dira, beste bati edo emandako materialak mekanikoki kopiatu gabe, ikaskideei ( eta irakasleari, jakina) kontsultak egin diezazkiekeen arren, beti ere, lan giroa errespetatuz.</li> </ul> <p><b>Kalifikazioa:</b></p> <p>Ebaluazioko kalifikazioa ikusitako gai guztietan egindako lanen zein proben batez bestekoaren eta irakasleak izandako jarreraren bidez kalkulatu da.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ebaluazioa gaintzeko gutxienez 5 behar da, nota hori baino gutxiago atera duten guztiek ebaluazioa suspendituko dute eta dagokien atala berreskuratu beharko dute.</li> <li>• Sakelako telefonoak debekatuta daude: irakasleak jaso behar izanez gero puntu bat kenduko zaio ikasleari ebaluazioan.</li> </ul>					
<b>ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENKOAK</b>					
1.- Ikasle bakoitzak egiten duen eguneroko lan eta jarreraren balorazioa irakasleak egiten duen etengabeko behaketa.					

2.- Eguneroko lana, hala klasean bertan egindakoa, nola etxerako lana, koadernoan islatuta agertu behar da. Antolatua, txukuntasunez aurkeztua, hizkuntza eta hiztegi aproposaren erabilera, eguneratua. Ariketen artean tarte huts gorde behar da zuzenketak jasotzeko, Irakasleak edozein momentutan eska dezake.

3.- Taldekako lanetan eta taldeka burututako txostenetan ikasle bakoitzak izandako parte hartzearen balorazioa ere egingo da. Ahozko azalpenean antolaketa, argitasuna, hizkuntza, bat batekotasuna eta gorputz lengoia kalifikatuko dira.

#### **Borobiltzea:**

**Ebaluazioko** nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

**Ikasturte bukaerako** nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

#### **ERREKUPERAZIO SISTEMA**

- Ebaluazio guztiak gaindituak izan behar direla, edo gutxienez 4tik gorakoak (berreskurapena egin ondoren). Hala ez balitz, Nahikotasuna egin beharko luke ikasleak.
- Ikasleren batek nota goratu nahiko balu, azterketa bat egin beharko luke. Sakelako telefonoak debekatuta daude: irakasleak jaso behar izanez gero puntu bat kenduko zaio ikasleari ebaluazioan

#### **KANPOKO EBALUAZIOA**

OHARRA: Hau guztia hasierako plangintza da, malgutasunez jarraituko dena. Ikasturtean zehar ikusten bada komeni dela zerbait aldatzea, zilegi litzateke.